

Kultura eta hizkuntza: IHEOko B1 mailarako proposamen didaktikoa

**Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan
MASTER AMAIERAKO LANA**

Ikaslea: Bidatz Villanueva Echagüe

Tutorea: Juan Karlos Lopez-Mugartza

Ikasturtea: 2019/2020

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Laburpena

Lan honen helburua kulturaren eta hizkuntzaren irakaskuntza uztartzeko baliagarria izanen den proposamen didaktiko eta moldagarri bat egitea da. Gaiaren garrantzia justifikatzeko ildoak nabarmendu dira, bi alorrek ez luketelako beregainak izan behar. Halaber, hizkuntzaren irakaskuntzan kulturartekotasuna lantzeak izan ditzakeen ondorio baikorrak aipatu dira, beste kultura batzuk ezagutzuz, gainera, ulertuko baitu norbanakoak berea. Bestalde, irakaskuntzaren ikuspegi komunikatiboa aintzat hartzen dituzten teoriari erreparatu zaie, azken hamarkadotan erronka horri heldu baitiote hezkuntza sistemek. Alabaina, ondorioztatu da hizkuntzaren ikaskuntzarako onuragarriak liratekeen ildoek ikaslekuetako benetako eskakizunekin borrokatu behar dutela, eta askotan jo ohi dela formakuntza komunikatibotik aldentzen diren ariketak proposatzera.

Hitz gakoak: kultura, euskara, hizkuntza, irakaskuntza, didaktika.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	5
1.1. Gaiaren aurkezpena eta garrantzia.....	5
1.2. Ikerketaren helburua.....	7
2. MUGAK.....	7
3. IHEOn EUSKARA IKASTEIA.....	7
4. MARKO TEORIKOA.....	9
4.1. Zertan da euskal kultura?.....	9
4.2. Kultura ikertzeko markoak.....	10
4.3. Euskaldunen kultur-praktikak.....	10
4.4. Zer da euskal kultura?.....	11
4.5. Kultura eta hizkuntzaren irakaskuntza.....	12
4.6. Kulturartekotasuna hizkuntzen irakaskuntzan.....	15
4.7. Hizkuntzaren eta kulturaren ikaskuntza komunikatiboa.....	18
5. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA.....	23
5.1. Iraupena:.....	23
5.2. Izenburua:.....	23
5.3. Edukia:.....	23
5.4. Baliabideak.....	23
5.5. Helburuak.....	24
5.6. Ataza.....	24
5.7. Gaitasunak.....	24
5.8. Testuingurua.....	25
a. Aukerak eta oztopoak.....	25
b. Ikasle taldea.....	26
5.8. Metodologia.....	26
5.9. Ebaluazioa.....	27
5.10. Jaruderen sekuentzia.....	28
5.11. Jardueren zehaztapenak.....	28
6. ONDORIOAK.....	34
7. BIBLIOGRAFIA.....	36
8. ERANSKINAK.....	38
8.1. Gidoia.....	38
8.2. Nor-Nork lantzeko ariketak.....	39
8.3. Entzumena eta mintzamena lantzeko ariketa.....	40
8.4. Irakurmenaren ulermena eta mintzamena lantzeko ariketa.....	41
8.5. Azken ariketa giteko gidalerroak.....	42
8.6. Grafikoa.....	43

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

1. SARRERA

1.1. Gaiaren aurkezpena eta garrantzia

Nafarroako biztanleen %11,7 euskal hiztuna da 2018ko Nafarroako Foru Komunitateko parte hartze kulturalari buruzko inkestaren arabera (58. or.). Halaber, kopuru horren %61,2 da euskarazko parte-hartze kulturala gauzatzen duena; alegia, biztanleria osoaren %13,4 (59. or.). Foru Komunitatean 653.846 norbanako daude errolatuta, Nafarroako Estatistika Institutuak 2019ko urtarrilaren 1ean bildutako datuetan islatu bezala. Hortaz, kalkulua eginda, 87.615 lagunek berretsi zuten euskarazko kultur jardueratan parte hartzen dutela.

Nafarroako zonakatzearen arabera emandako zenbaki horiek gorantz edo beherantz joko duten arren, ehuneko orokorrari heltzen badiogu, gutxietsi ezin daitekeen kopurua da. Agerian uzten dute datuok Nafarroako euskal hiztunen zati handi batek jarduera kulturalak praktikatzeko dituela. Dena den, kultura baita hain kontzeptu zabala, horren barneko aztergaiak zehaztuko dira ikerketa honetan. Oro har, loturik daude materiala denarekin, eta ez hainbeste kultur komunitate bat osatzen duten eguneroko ekintzekin, hala nola ordutegiak edota harremanak izateko ohiturak.

Ikerketa honek kezka pertsonaletan du abiapuntua. Izan ere, ondoriozta daiteke hizkuntzaren egoera diglosikoak kultur jarduerak ere baztertzea dakarrela, eta Iruñeko Kondestablen 2020ko urtarrilaren 24an eginiko Hari Izpia Hartzen euskal kulturaren inguruko jardunaldietan Josu Amezaga EHUko irakasle eta ikertzaileak aipatu zuen une kritiko batean dagoela hizkuntza eta kulturaren afera. Ezagutza handitu izanagatik, ez da hala gertatu erabilerari dagokionez. Plangintza komun eta artikulatu baten beharra nabarmendu zuen.

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean euskara ikasleak etorkizuneko euskaldunak izan daitezke. B1 mailak komunikaziorako erdiko gaitasuna eskuratzen lagunduko die,

baina pentsatzekoa da hizkuntza eskolan Erdiko mailako ikasleek oraindik ez dutela lortu nahikotasun-maila, Sanchez Carrion (1991) hizkuntzalariak erranen lukeen bezala, hizkuntzaren ezagutza teorikoa ez delako modu eraginkorrean islatzen ikasleen eguneroko bizi-ekintzetan (60. or.).

Motibazioak daramatza IHEOeko ikasleak euskara ikastera, oinarriko ezaugarria, Sanchez Carrionen aburuz, hizkuntzaren ikasketa gauza dadin, ikasle horiek euskararen gaitasun linguistikoak erdiesteko, bide kulturala (motibazioa, ikasketa eta erabilera) baitarabilte, euskara ama hizkuntza dutenek ez bezala (Sanchez Carrion, 1991, 51. or.). Garai kritikoa motibazio hori handitzeko aukera izan daiteke, euskara ikasteko baliabide berriak probatzen, adibidez, ikasgela arruntetan normalean erabiltzen ez direnak.

Hizkuntzaren gaitasun altua duten ikasleak lirakeke kontsumitzaile potentzialki nabarmenak. Profilak zeharo ezberdinak izan daitezkeen arren, IHEOk eskaintzen duen irakaskuntzaren eta ikasleen kultur praktiken arteko interakzioa aztertzeko parada egokia izan daiteke. Horrek bide eman dezake ikerketa sakonagoetarako, proposamenak egiteko edo euskal kulturaren kontsumoaren inguruko ondorio argigarriak plazaratzeko. Baina horra iristeko bide luzea igaro behar izan dute, ikasketaren haria eten gabe. Motibazio ezberdinak izan ditzake ikasleak maila batean edo bestean, bere bizitzako inguruko faktoreek eraginik. Hasieran, beraz, euskaragatik duten interesa mantentzea eta horretan sakontzea garrantzitsua izanen da.

Odriozolak (1998) haren laneko aitzinsolasean azpimarratzen du hizkuntza ez dela elementu beregaina: “Hizkuntz komunitatearen egitura ez da hizkuntzara murrizten den izaria” (7. or.). Plazaratzen duenaren arabera, hizkuntza komunitate bat hiru instantziak edo mailek osatuko lukete; alegia, mintzairak berak, kulturaren sistema sinbolikoak eta gizarte egituraren izari sozialak, zeina beste bien zimendu baita (p.7). Halaber, irmo azaltzen da kulturaren garrantziari dagokionez. Haren ustez, “hil ala biziko lanabesa da, orobat, gizartearen euskaltasuna atxikitzeko” (10. or.).

1.2. Ikerketaren helburua

Ikerketa honen helburua hizkuntzaren komunikazio gaitasuna lantzeko kulturaz beraz hausnartuko duen proposamen didaktiko bat egitea da B1 mailan aplikatzeko.

Xede hori erdiesteko, hauek izanen dira jarraituko diren helburu espezifikokoak:

- IHEOeko ikasleen profila zehaztea eta euskara ikasteko arrazoiak ezagutzea.
- Ikasleen kultur praktiken datuak biltzea, ikaslekuetan jasotzen duten irakaskuntzak euren erabakietan izan dezakeen eraginaren aldagaia aintzat hartuta.
- Hizkuntzaren Didaktikaren aukerak aztertzea.
- Kulturaren kontzeptuan sakontzea, eta euskal kulturaren inguruko hausnarketen eta ikerketen berrikuspen bat egitea.
- Kulturartekotasuna definitzea eta ezaugarriak ulertzea.
- B1 mailara hoberen egokituko den proposamena egiteko marko teorikoan oinarritzea.

2. MUGAK

Koronabirusagatik sortu den egoerak konfinatzera behartu gaitu. Askok ez dugu praktikekin jarraitzeko aukerarik izan, hasi eta aste batera etxera bidali gintuztelako. Ondorioz, nire kasuari dagokionez, ez dut irakasle lana sakonean ezagutzeko aukerarik izan, eta hori muga bat izan da proposamen didaktiko hau osatzerakoan, esperientzia falta hori islatuta gera baitaiteke metodologia eta ariketen planteamenduan. Bestalde, ezin izan da proposamena ikasgelan aplikatu.

3. IHEOn EUSKARA IKASTEA

Azken urteotako programetan Europako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratua darabil IHEOk hizkuntza-programak osatzeko. Horietan gaitasun linguistikoak garatzen

dira, eta normalena da zeharka, euskarari dagokionez, komunitate horri dagozkion kultur alorrak lantzea.

Nahiz eta ez zaion kulturari bere horretan heltzen, gramatika praktikatzeko erabiltzen diren materialek, adibidez, euskal kulturaren inguruko edukia izan dezakete. Bestalde, IHEOn eskolaz kanpoko jarduerak proposatzen zaizkie askotan ikasleei, musikarekin, antzerkiarekin eta bestelako ekintzekin lotuak.

Erdietsi beharreko mailei buruz Europako HEMBk ezarritako irizpideetan, era berean, hizkuntza gaitasunei soilik egiten zaie erreferentzia, hori baita helburua, hizkuntzari hertsiki atxikitutako abileziak eskuratzea komunikazio eraginkorra gauzatu ahal izateko. Hala bildu ditu Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak B1 mailako eskakizunak:

“Las enseñanzas de Nivel Intermedio B1 tienen por objeto capacitar al alumnado para desenvolverse en la mayoría de las situaciones que pueden surgir cuando viaja por lugares en los que se utiliza el idioma; en el establecimiento y mantenimiento de relaciones personales y sociales con usuarios de otras lenguas, tanto cara a cara como a través de medios técnicos; y en entornos educativos y ocupacionales en los que se producen sencillos intercambios de carácter factual. A este fin, el alumnado deberá adquirir las competencias que le permitan utilizar el idioma con cierta flexibilidad, relativa facilidad y razonable corrección en situaciones cotidianas y menos habituales en los ámbitos personal, público, educativo y ocupacional, para comprender, producir, coproducir y procesar textos orales y escritos breves o de extensión media, en un registro formal, informal o neutro y en una variedad estándar de la lengua, que versen sobre asuntos personales y cotidianos o aspectos concretos de temas generales, de actualidad o de interés personal, y que contengan estructuras sencillas y un repertorio léxico común no muy idiomático.”(Nafarroako Gobernua, 2019, 3. or.).

4. MARKO TEORIKOA

4.1. Zertan da euskal kultura?

Ikasleengan euskararen erabilera sustatzeko ikerketan, eremu akademikotik kanpo euskararen erabilera bultzatzeko jarduerak antolatzea nahitaezkoa ikusten dute autoreek, eta, halaber, familiak eta gizarteak hedabideen eta kultur praktiken kontsumoan duten garrantzia plazaratu dute (Martínez de Luna et al., 2013, 75. or).

Bestalde, euskal kulturaren inguruko hausnarketa sakona dakar Joxe Manuel Odriozolak (1996) Josu Amezaga irakasle eta ikertzailearen ekarpena oinarri hartuta. Haren aburuz, kultura bakar batez ezin da hitz egin, horrek ezinbestean iradokitzen baitu beste bat edo gehiago daudela. Amezagak botere harremani erreparatzen die; *euskal kulturaz* baino gehiago, *kultura popularraz* hitz egin behar baita, hegemonikoari kontrajartzen zaiona (63. or).

Odriozolak (1996) berak Amezagaren lanetik berreskuratutako bi aipuk informazio argigarria eskaintzen dute euskal kulturaren nolakotasuna ulertzeko:

«Euskararen eta euskal kulturaren inguruan gertatzen direnak ulertzerik ez dago, masa komunikabideek eta kulturaren industriak hedatzen duten kulturaz eta bere funtzionamenduaz, kasu, hausnarketa egiten ez badugu» (63. or.)

«Euskal Herriari bere nazio izaera ukatzen dion egitasmo politiko ekonomikoak hizkuntzaren ezarpenaz baino bide gehiagotik lortzen baitu bere nagusitasuna. Eta Euskal Herriak, ezaugarri etnikoen defentsan baino eremu gehiagotan erantzuten baitu, bere nortasunari eusteko» (63. or)

4.2. Kultura ikertzeko markoak

Orain arte, euskal kulturaren kontsumoaren inguruan eginiko lanen literatura erabiliko da ikerketa honen oinarriak zehazteko. Izan ere, Nafarroako Foru Komunitateko parte hartze kulturalari buruz Kulturaren Euskal Behatokiak eta Eusko Jaurlaritzak eginiko azken inkesta (2019) baliagarria da kategoriak ezartzeko.

Alde batetik, kultur praktikan engaiatzeko motibazioak sailkatzen dira; alegia, sinbolikoa, kulturala, soziala eta emozionala (11. or). Horrez gain, euskarazko kultur-praktiken markoak zehazten dira, eta horiek hartuko ditu abiapuntu bezala lan honek. Honakoak dira: musika entzutea, antzerkia, zinema eta irakurtzea (23. or).

4.3. Euskaldunen kultur-praktikak

Nafarroako Foru Komunitateko Parte Hartze Kulturalari buruzko inkestak (2018) bildutako datuen arabera, euskal hiztunek gehien gauzatzen duten praktika kulturala musika entzutea da, biztanleria osoaren batez bestekoak baino askoz gehiago. Izan ere, %40,5en aldean, %89,9ra igotzen da euskaldunen artean kontsumoa. Antzerkia ez da hain ohikoa, %55,5 baita azken 12 hilabetetan behin gutxienez joan dena. Irakurketari joz, %40,4ra jaisten da ehunekoa. Azkenik, zinemari bagagozkio, %52,5 dira euskarazkoa hobesten dutenak gaztelaniazkoaren aurrean, baina inkestak ez du benetako asistentzia neurtu (23. or.).

Dena dela, orokorrean, ikus daiteke askoz altuagoa dela euskal hiztunen euskarazko kultur praktiken maiztasuna, biztanleria osoarena batez bestekoa baino, zeinak barne hartzen baitu euskarazkoa eta gaztelaniazkoa. Datuok eskuragarri daude Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren inkestan (2019, 23. or.). (Ikus 8.6. eranskina).

4.4. Zer da euskal kultura?

Kulturaren adierak oso bestelakoak izan daitezke leku batean eta bestean. Amezagak (1994) bi ikertzailearen deskribapenak mahaigaineratzen ditu: Krutwigentzat “literatur euskara herri honen ezaugarri behinena izango litzateke (...)” eta Barandianentzat “kultura ilustratuarekin kontakturik izan ez duen herri xehea, hain zuzen, euskal kultura jatorrena gordetzen duena” (251. or.). “Ele bitan bizi nahi duen herritarrak bi kulturen jabe izan beharko lukeela” uste du Odriozolak (2004), antropologia linguistikoaren teoriak oinarri hartuta.

“Gizabanako bat komunitate baten barruan egotea, hor sozializatua ez bada, ez da aski gizatalde hori ezagutuko duela bermatzeko”, aipatzen du Zaratek (1999, 83. Or.). Izan daiteke, eta ematen da, beraz, komunitate euskaldunetako kideak izatea euskaraz eta euskal kulturaz ezer gutxi dakitenak. Halaber, Zaratek aipamen egiten dio egonaldiaren iraupenari, kultura batez barneratzen diren irakaspenak edota ezagutzak ez baitira horren baitakoak (84. Or.).

Komunitate guztiak besteen aurrean definitzen dira, Amezagak (1994) euskal kulturaren inguruko tesian azaltzen duen bezala: “Lorea, ez adar, ez hosto, ez sustrai, ez lur, ez beste ezer dena da; Euskal Herria, halaber, ez espainol ez frantses ez beste ezer dena da” (249. or.). Prozesu hori bera jarraitu du euskal komunitateak bere burua definitzeko: “besteengandik bereizten duena bilatu beharra ez da nahikeria hutsa izan, bere izaera bera mehatxaturik ikusi duen gizatalde baten autotopaketa logikoa baizik” (Amezaga, 1994, 249. or.).

Euskal kultura kultura popular bezala ikusten du Amezagak (1994), aldi berean eredu hegemonikoaren konfrontazioan eta negoziazioan, “onartutako mendekotasunean” (254. or.). Halaber, “kultura batek bere batasunari eta iraupenari

eutsi ahal izateko” ezinbestekoa da autorearen esanetan, “Hizkuntza bezalako hedapen handiko sistema egituratu eta egituratzaile sendo bat edukitzea(…)” (255.or.).

4.5. Kultura eta hizkuntzaren irakaskuntza

Odriozolak (2004) irakaslearen izaera ideologikoak euskaldun berriengan duen eragina azpimarratzen du. Izan ere, azaltzen duenez, “giza eta gizarte-bizitzaren hartu-emanak eratzen dituen kultura eta informazio-erreferentzia nagusiak erdal mundu hegemonikoan txertatuak dauzka euskaldun berriak, eta izan/ez izan bizi den euskal munduan, euskal kulturaren gai eta aipamenak, berriz, euskal kultura etnikoaren ezpalekotzat hartuko ditu”. Hori dela eta, kultura biziak erdal kulturarekin harremana duela deritzo, euskalduna hainbat ekitaldiri soilik atxikirik dagoela.

Hori hala izanik, Odriozolaren (2004) iritziz euskal kultura biziari “Helduen Euskalduntzeko curriculumean zer-nolako lekua opa zaion” jakin beharko litzateke, ez baitu eskuratu gizarte-legitimaziorik haren esanetan; hori lortzea ere zaila dela gehitzen du: “Ez da lan erraza, egia esan, arerioaren ideologiaz ondutako interpretazio gailendu baten aurrean, nor bere autodefinizioaren erdua eratu eta ezarri ahal izatea”.

Norberaren motibazioei ematen die garrantzia Berastegik (2014): “Jarrerazko alderdiak (euskara eta euskal kultura ezagutu nahia) ere garrantzitsuak dira, bai euskararen erabileran eta baita euskal kulturaren praktikan ere” (43. or.). Halaber, erabilerarik handiena euskararen ezagutzarekin eta kultur praktikekin loturik dagoela baieztatzen du autoreak. Jarrera (euskara ezagutzeko nahia) eta identitate (euskaldun sentimendua) alderdiek jarraitzen diote (43. or.).

Berastegik (2014), bere lanean, frogatzen du euskararen erabileran kulturaren ezagutzak eta praktikek duten lotura. Horregatik irizten du eskola komunitateak bere buruari galdetu beharko liokeela programa jakinik dagoen kultura lantzeko, eta,

erantzuna ezezkoa izatekotan, neurriak hartzea. Zentzu horretan komunitate gutxituen izaera kontuan hartzea proposatzen du:

“(…) garrantzitsua izango da eskoletatik hizkuntza gutxituekiko zein kultura gutxituekiko begirunean oinarritutako gizarte eleaniztun baterako ikuspegia sustatzea. Hizkuntza edo kulturen irakaskuntzarekin batera garrantzitsua izango da hizkuntza zein kulturekiko jarrera eta motibazio positiboak garatzea. Ikusi dugun bezala, jarrera eta motibazioak ere hizkuntzaren zein kulturaren praktikaren auresate garrantzitsu dira” (45. or.).

Metodologia kooperatiboak eta ahozketasuna lantzerantz bideratutakoak balioesten ditu Berastegik (2004), baina horretarako baldintzak mahaigaineratu eta erraztu behar direla deritzo, “hezketza administratibotik laguntza eskaintzea, beharrezkoak diren bitarteko, formazio eta aholkularitza eskainiz, eskolako hizkuntza proiektua benetako bitarteko baliagarri bat bihurtu dadin” (46. Or.).

Ildo berekoa da Zarate (1999), “begi bistakoa” baita “hizkuntzaren irakaskuntzan kulturak duen garrantzia” (81. Or). Hori dela eta, ikasgai den xede-hizkuntzaren hiztunak inguratzen dituzten faktoreak kontuan hartu behar dira, hala nola, baloreak, usadioak, jokaera komunak edo usteak, betiere ikasleen kultura alboratu eta ahaztu gabe. Berdin irizten du Huttunenek (1999), haren aburuz komunikatzeko modua eta kalitatea baldintzatuko baitute hizkuntza berri bat ikasten ari denaren nortasun-ezaugarriek eta jarrerak, trebetasun eta ezagutzekin batera, eta, halaber, “xede-kulturaren arau soziokulturalek kanpotik baldintzatzen dute nola erabili behar dugun xede-hizkuntza” (96. or.).

Erronka horretan irakasleen esperientzietatik mintzo da Llovera (1999):

“Eta azkenik, irakasle bezala konturatzen zara ikasleek ondo ezagutzen dutenaz hitz egiten ikasi behar dutela xede-hizkuntzan; beraien munduaz, beraien kulturaz, eta ez horrenbeste xede-hizkuntzaren alderdi kulturalaz zeren horietaz

ezer gutxi baitakite. Alderdi kultural horiek ezagutu, entzun eta komentatu egin behar dituzte, noski. Baina beren kultura propioaz hitz egin beharko dute, beraien hizkuntzaren atzean dagoen kulturaz. Badakigu axioma hau ez dela hemen, hizkuntzak ukipen-egoeran daudenez, hain argi azaltzen, kulturak oso elkarren ondoan baitaude. Oso kultura konpartituak dira” (76. or.).

Europatik sustatu nahi izan den kulturartekotasuna mahaigaineratzen du Zaratek (1999): “(...) mugarteko higikortasuna ikusten eta hiritartasun europarra aintzat hartzen badira, pentsatzekoa da alteritatezko harremanek garrantzi handiko elementu izan beharko dutela hizkuntzen ikas-irakaskuntzan datorren hamarkadan” (82.or.). Alteritatezko harremanek konfrontazioa eragiten dute norbanakoarengan kultur sistema ezberdinekin aurrez aurre jartzean eta gatazka horri irtenbidea bilatzen ikasi behar du ikasleak, Zaratek azaltzen duenez: “Arrotzaren irudiak sortzen dituen disfuntzioak eta erresistentziak kudeatu beharko direla” (82. Or.).

Hamarkada batzuetatik hona, orokorrean, European edozeinek ekin diezaioke beste hizkuntza bat ikasteari. Zaratek (1999) positibotzat jotzen du joera hori. Izan ere, hizkuntza berriak ikasteak batzuen eta besteen zeharkako ezaugarri komunak indartuko ditu (82. Or.). Autoreak alteritatea ere du hizpide: “Besteari buruzko diskurtsoak gizabanako bakoitza komunitate jakin batean sozializatzearen ondorio dira eta alde horretatik beti izan daitezke etnozentrikoak” (83. or.). Kultura ezberdinak daudela ez onartzeak sustatzen ditu aipatutako jarrera etnozentrikoak, norberarena ez dena kulturatzat ez hartzean, edo alteritate bitar bat eraikitzea baten kultura arrotza denarekin kontrajarriz eta mespretxatuz.

Alteritatearen pertzepzio etnografikoa gaindi daiteke, ordea. (Zarate, 1999, 87. or.). Bide horretan gaitasun afektiboak lantzea, kulturen arteko erlazioak ezartzea eta horiek mantentzeko abilezia intelektualak garatzea aholkatzen du Zaratek (90. or.).

4.6. Kulturartekotasuna hizkuntzen irakaskuntzan

Kulturarteko jarrera bat garatzeak ikasleari erraztuko dio hizkuntza baten gaitasun guztiak lortzen eta testuinguru berrietara egokitzen. Horren ondorio, norberaren kulturaren kontzientzia ere garatuko du, Yin eta Cortazzi (1998) autoreen arabera. Hizkuntza berri bat ikastearekin kulturarteko ikaskuntza gertatzen da ezinbestean azaltzen dutenez, eta, modu horretan, kulturarteko gaitasunak garatzeko egoera onera irits daitezke (104. or.).

Izan ere kultura eta hizkuntzaren arteko loturak korapilatsuak dira eta hainbat mailatan ikus daitezke (Yin eta Cortazzi, 1998, 105. or.):




Figura 1: Complejidad de los vínculos entre la lengua y la cultura: marco para la comunicación y el aprendizaje.

Baumann eta Sherzer, (1974) eta Saville-Troikeren (1989) ideiak ekartzen dituzte Yin eta Cortazzik (1998), euren aburuz, bizitza kulturaleko oso alor gutxi baitaude ulergaiak direnak hitz egiteko modu kulturalak kontuan hartu gabe (edo alfabetatzea), bere eraketaren osagaiak direlako (105. or.).

Zer da, beraz, komunikazioaren kultura?

“(…) un patrón sistemático de énfasis culturalmente específico en los modos del habla que sirve de mediador entre la lengua y la cultura en interacción verbal (...). La cultura de la comunicación puede no estar en sintonía con la de la lengua objeto de estudio. Esto también impediría que los alumnos tuviesen la oportunidad de aprender destrezas interculturales (Yin eta Cortazzi, 1998, 105-106. or.).

Hala eta guztiz ere, nahiz eta irakasleak hizkuntza ikasteko eta kulturaren barneratzeko inguru estimulatzaileak lortzen saiatzen diren, ikaslekuak ikasleku izaten jarraituko du, eta beti izanen dira sakonki barneratutako itxaropenak norberak klasean izan behar duen jarreraren inguruan eta gainerakoen portaera interpretatzeko moduan, Yin eta Cortazzik baieztatzen dutenez (1998, 106. or.).

Oliverasek (2000) azaltzen duenez, egungo psikologia sozialaren teoriak gaitasun interkulturalaz diote oinarrian egoki jokatzeko jakitea dela topaketa interkulturala gauzatzen denean (35. or.). Hau da, lurraldeko edo herrialdeko arauen eta konbentzioen arabera, komunitateko kideak imitatzen. Bestelako gaitasun sozialak eskatzen dizkio norbanakoari komunikazioa arrakastatsua izan dadin. Euskararen kasuan, ordea, askotan oso marra finak banatzen ditu ukipenean dituen kulturak, eta hizkuntza gutxitua denez gero, halakoa da ere kultura. Pertzepzio hori bereganatzeak ulertaraz diezaioke norbanakoari hizkuntza inguratzen duten eragileak.

Atzerriko hizkuntzak eta kulturak ikastean alderdi emozionala baino gehiago, kognitiboa lehenetsi dela nabarmentzen du Olivaresek (2000), lehena alboratuz; baina esperientziak berretsi du paper garrantzitsua betetzen dutela zirraren atzeritar bat ezezaguna duen kultura batean barneratzean (4. or.).

Ildo horrek abiapuntua du norbanakoaren jarreran. Izan ere, gaitasun interkulturala pertsona batek berea ez den beste kultura batzuekiko duen jokabidea da hasteko eta behin (Olivares, 36. or.). Autoreak dioenez gaitasun interkulturalak hainbat trebetasun orokorrak biltzen ditu kontaktu kulturean eragin garrantzitsua duten alor afektiboei erlazionaturik.

Ikuspegi pedagogikotik, gaur egun, maila afektiboari ere jartzen zaio arretarik handiena, Kolakek (2015) bildutako informazioaren arabera: "Even Pestalozzi emphasized that education should be a unity of head, heart and hands or, speaking in modern language, unity of cognitive, affective and psychomotor (Bognar, Dubovicki 2012)" (73. or.). Ikaskuntza prozesuan eman daitezkeen erantzun emozionalak zerrendatzen ditu:

"Didactic culture in this paper distinguishes those emotional reactions that are associated with learning activities and those related to educational outcomes. In the category of emotional responses of students that are associated with learning activities, boredom (as an unpleasant emotional reaction) occurs as the most significant response, and curiosity (as a pleasant emotional reaction), and in the category of emotional responses related to learning outcomes, fear (as an unpleasant emotional reaction) occurs as the most important response, and satisfaction (as a pleasant response)" (74. or.).

Ikasleak emozionalki erakarrita sentitzen badira eduki jakin baten gainean haien inplikazioa handiagoa izanen da, eta bidean topatzen dituzten arazoei hobe egingen diete aurre. Ikasketa prozesuan ikasleek dituzten erantzun emozionaletan igartzen da irakaskuntzaren testuinguruko egoera eta zein ikaslek parte hartzen duen modu aktiboan. Era horretan, zuzenean edo zeharka joka dezake irakasten eta ikasten (Kolakek, 2015, 74).

Murphy (1998) aipatzen du Olivaresek (2000) kulturartekotasuna oinarrian izanen duen hizkuntzaren irakaskuntza babesteko:

“De acuerdo con Murphy, la finalidad primordial de incluir aspectos afectivos y emocionales es reducir el etnocentrismo y modificar las actitudes individuales hacia los otros, lo que repercute en un cambio en la propia actitud. El lenguaje es considerado parte de la cultura, en el sentido de los signos lingüísticos sólo son la

parte más visible de la cultura extranjera. Por consiguiente, no es suficiente estudiar el lenguaje para adquirir una comprensión de la cultura” (37. or.).

Hori dela eta, ikuspegi holistiko batekin erlazionaturiko irakaskuntza bat garatzeko hainbat alor kontuan hartu behar direla irizten du Olivaresek (2000, 37. or.): norberaren izaera eta identitatea (asmoa da pertsona bat kulturarteko egoera batean dagoenean, bera izateari ez uztea), enpatiaren garapena eta kulturarteko eragile izatea edo ez.

Nahi hala ez, ordea, hizkuntza-ikaslea “bitarteko kultural” bezala ikusi ohi dela irizten du Zaratek (1999): “Kultura bat ezagutzen ez duenari aurkeztu nahi zaionean -batez ere eskolan, jarrera klasikoa izaten da lurralde nazionalaren haritik aurkeztekoa; frontera-kontuak daude hor deskribapenaren erdi-erdian sartuak” (86. Or.). Horrek hainbat helburu hartzen ditu bere baitan, Zaratek deskribatzen dituenak, gatazkak eta komunikazio testuinguru zailak gainditzea, negoziatzen jakitea eta solaskidearen azalpen-sistema baten ontasuna ebaluatzea, besteak beste (86. Or.).

Gaitzespeneko jarrerak suerta daitezke hizkuntza ikastean, eta, Zaratek (1999) dioenez, ez da nahikoa hizkuntza berriak ikastearekin beste sistema bateko kultur ezberdintasunak eragin dezakeen arbuioa gainditzeko, eta ez da zilegia, halaber, jarrera ezkorrek ikasgai den hizkuntza eta kultura arrotzaren irudikapen ezkorrekin nahastea (90. Or.).

4.7. Hizkuntzaren eta kulturaren ikaskuntza komunikatiboa

Huttunenek (1999) irudiz begi-bistakoa dena nabarmentzen du, “Hizkuntza ikaskuntza” kontzeptuak zer iradokitzen duen alegia: hizkuntza eta irakaskuntza. Hori hala izanik, kontzeptu horien inguruan eraikitzen diren curriculumak eta horiek aurrera eramateko ikasketa-egoerak oso bestelakoak izan daitezke (95. or). Duela hamarkada batzuetatik hona hizkuntzaren irakaskuntzaren ikuspegi guztiz linguistikoa alboratu da, gaitasun komunikatiboak garatzearen mesedetan. Hori osatzen duten ezaugarriak bildu ditu Huttunenek:

- “Osagai linguistikoa, hizkuntza sistema legez aztertzen du eta hizkuntza ikasteko moduez ari da.
- Osagai soziolinguistikoa, alde batetik, ikasleak bere eta xede-hizkuntzaren kulturari buruz duen ezagutza eta lorpen-mailari dagokio eta, bestetik, ikasleak gaur egun komunikatzeko aurkitzen duen gizarte-egoera.
- Osagai pragmatikoa, hurrengo elementu hauei dagokie: a) ikasleak bizitzan eta ikasketetan dituen aurre-esperientziaz b) ikaslearen pertsonalitate eta jarreraz; hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko modua baldintzatuko baitute, eta c) ikaslearen komunikatzeko trebetasun eta ezagutza teknikoa (95-96. or.).

Ikaskuntza ahalik eta hoberena izan dadin, gakoa planifikazioan dagoela sinesten du Huttunenek (1999), baita kontzientzia handitzeko ere (100. or.). Ikaslearentzat ez ezik, irakaslearentzat ere lagungarria izanen da (97. or.). Ikasten ari direnaren helburuak zeintzuk diren, bidea zen izanen den eta ebaluazioa nolakoa izanen den jakitea komeni zaie ikasleei. “Irakaslearentzat benetako erronka dira” (100. or.).

Kroaziako eskoletako ikasle taldeak hartu zituen lagin bezala Kolakek (2015) bere ikerketa enpirikorako, eta, ondorio moduan, erronkarik handiena da irakaskuntzan asperdurari aurre egitea:

"The students' emotional responses have demonstrated efficiency, not directly for changing the practice, but as an indicator for teaching quality and for didactic culture of school, and as a motivator for further actions. This study specifically demonstrates the importance of the emotional response of boredom. In observation of teaching, actions are mainly directed at this emotional reaction because it has far-reaching consequences for didactic culture and represents the main didactic challenge" (79. or.).

Sanchez Carrionek (1991) adierazi bezala, hizkuntza ikasteko hiru faktore ezinbestekoak dira: motibazioa, ezagutza eta erabilera (35. or.). Faktore horiek “espontaneoak (naturalak)” edo “induzituak (bihurkariak)” izan daitezke (36. Or.), eta baldintzatuak izanen dira norbanakoa nondik abiatzen den arabera hizkuntza ikasteko; alegia, motibazioa, esaterako, ez da berdina izanen euskara eskolan ikasiz gero edo gaztelania hiztun elebakar bat izanik. Ikasketa “goiztiarra” eta “berantiarra” bezala izendatzen ditu, hurrenez hurren (37. Or.). Aurrerago deskribatzen duenez, “lehen mailako ibilbidea”, erabileratik motibaziorako bidea egiten duena, eta “bigarren mailako ibilbidea”, motibaziotik erabilerara iragaten dena. Bi ibilbide horien baturak eratzen du zirkuitua, ikaskuntza linguistiko osoa, alegia (69. Or.).

Bigarren mailako ezagutza motibaziotik hasten dela baieztatzen du Sanchez Carrionek (1991, 44. Or.), hain zuzen hizkuntza eskoletan gauzatzen dena. Haren ustez, motibazioa da hizkuntzaren ikaskuntza bultzatzen duen ezaugarri nagusia. Halaber, helduen motibazioa hizkuntzaren berreskurapenaren giltzarri dela deritzo autoreak:

“El proceso de recuperación de un idioma en situación regresiva exige una motivación máxima o ilimitada por parte de los adultos que lo asumen, ya que, utilizando un término afortunado de R de Olabuénaga et al., el objetivo es para estos adultos previamente desnativizados por un despojo histórico (invasión de un campo de uso) *repatriarse* a su lengua nacional” (48. Or.).

Lehen kultura irakasteko prozesua kritikatzeko du Areizagak (2001), “klasea apaintzeko erabiltzen zen gehigarri bat” bezala tratatzen baitzen, haren aburuz (158. Or.). Defendatzen du gaitasun komunikatiboaren kontzeptuak ez duela hizkuntza bat jakitea sistema linguistikoa menderatzera murrizten. Testuingurua, interakzio soziala eta hizkuntzaren alor soziokulturalak ere biltzen ditu (159. Or.). Kultura eta hizkuntzaren izaera bereizezina aldarrikatzen dute adituek.

Kulturari 80ko Hamarkadan hasi zitzaion garrantzia ematen irakaskuntzan. Ikuspegi komunikatiboaren ardatz bihurtu zuten, eta hizkuntza klaseak pragmatikoagoak bilakatu ziren. Bi ildo deskribatzen ditu Areizagak (2001): esfortzua gaitasun komunikatiboa garatzen jartzen zutenak, baina hizkuntzaz harago doan eduki kulturala bereiz uzten (Europar ildo hori izan da nagusi duela gutxi arte), eta hizkuntzaren alderdi soziokulturalak barne hartzen dutenak, hiztunen arteko komunikazioren testuinguruan kultura metaren ezagutza integratzen saiatuz (159. Or.). Beraz, autorearen aburuz, ikaskuntza ez da bideratu behar bestearren jarrera eta baloreak ikastera, baizik eta gainerakoak ulertzeko eta eurekin komunikatzeko gaitasuna garatzera. Halaber, kultura bat ezin da ulertu bakoitzak bere kulturaren eta guztien arteko erlatibotasunaren kontzientzia hartu gabe (164. Or.). Hortaz, kulturaren ikuspegiak gizartearen izaera dinamikoa barne hartu behar du, baita aniztasuna eta taldeen eta norbanakoen arteko sareen konplexutasuna erakutsi ere.

Halako irakaskuntza batek sortuko ditu hiztun interkulturalak, halako ezaugarriak izanen lituzketenak, Areizagak (2001) biltzen duenez:

“Un hablante intercultural es alguien que puede aplicar su competencia lingüística y su conocimiento sociolingüístico de la relación entre lengua y el contexto en el que se usa, para (1) manejarse en la interacción entre límites culturales, (2) para anticipar los malentendidos causados por las diferencias en los valores, significados y creencias, y (3) para hacer frente tanto a las demandas afectivas como cognitivas a la hora de implicarse con la alteridad (Byram: 1995: p.25)” (165. Or.).

Baina, era berean, kulturartekotasuna ardatz izanen duen irakaskuntza bat eskaintzearen zailtasuna mahaigaineratzen du Areizagak (2001):

“Es evidente que asumir un enfoque formativo es parte de una política educativa para la formación de un determinado tipo de ciudadanos. Pero el gran problema ante el que nos enfrentamos es la existencia de dinámicas políticas divergentes en relación con el contacto entre culturas. No sólo por el tratamiento que encontramos

en los medios de comunicación, que dinamita el poco trabajo que desde las aulas se pueda hacer por el desarrollo de la interculturalidad, sino incluso por los mismos planteamientos que encontramos en otras áreas curriculares, como por ejemplo, visiones etnocéntricas y patrióticas de la historia y la literatura, por no hablar de otras políticas en las relaciones internacionales o ante el problema de la inmigración” (166. Or.).

Areizagaren (2001) ustez, ikuspegi formatiboak ebidentzian jarri du kultura informazio bezala irakastearen akatsa, baina, aldi berean, atzerriko hizkuntzetako klaseez harago doazen galderak eta erronkak mahaigaineratu ditu (167. Or.).

Normalean hizkuntza irakasteko ikastaroetako helburuak lau gaitasunetan banatzen dira: ahozkoa, entzumenaren ulermena, irakurmena eta idazmena, baina banaketa zurrun horren arrakasta zalantzazkoa da (Widdowson, 2013, 57. Or.). Esaterako, hitz egitea ez da soilik soinu jakin batzuk produzitzea, keinuak egitea ere bada, aurpegiko muskuluen eta gorputz osoaren mugimendua (58. Or.). Horregatik hala zehazten du autoreak hizkuntza ahoz menderatzeko bidea:

“With reference to language teaching, it will be readily agreed that, where the aim of the language course is to develop an ability to handle spoken language, what learners need ultimately to acquire is an awareness of how the language being learned is used for talking. It may be, of course, that in certain circumstances it is expedient to spend time on the teaching of speaking and hearing first before moving on to the higher level communicative ability of talking.” (60. Or.).

5. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

5.1. Iraupena:

2 aste (4 saio)

5.2. Izenburua:

Zein da gure kultura?

5.3. Edukia:

- Gramatika Nor-Nork.
- Hiztegia: kulturartekotasunari eta ohiturei lotutako hiztegia.
- Ahozko testuen ekoizpena.
- Idatzizko testuen ekoizpena.
- Entzumena.

5.4. Baliabideak

- Telefono mugikorrak.
- Ariketen fitxak. (irakasleak eginak edo Arian liburutik hartuak).
- Entzumen ariektak.
- Ahots grabaketak.
- Hiztegia lantzeko fitxak.
- Ebaluazio orriak.

5.5. Helburuak

Ikasleak bizi duen egoera deskribatzeko jakintza garatzea eta ordura arte landutako gaitasun linguistikoetan sakontzea izanen da helburu nagusia. Horretarako ondorengo helburu espezifikoak ezarriko ditut:

- Nor-Nork kasua lantzea eta geihago barneratzea.
- Gaiari loturiko hiztegia eta bere aplikazioa ikastea.
- Idatzizko eta ahozko azalpen testuak ekoiztea.
- Gaiaren inguruko entzumen ariketak.

5.6. Ataza

Jardueren sekuentziaren azken lana hiruko taldeko 90 eta 120 segundo arteko ahots-grabaketa bat izanen da. Ariketak azken lan horretara bideratuta egonen dira, bukaeran gai izan daitezen ahozko testu bat ekoizteko hasieran ezarritako gaiari erantzunen diona, norberaren kultura deskribatzen saiatzea, alegia.

5.7. Gaitasunak

Hala biltzen du Euskarabideak bere web orrialdean Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoak B1 maila erdiesteko beharrezkoak diren eskakizunak:

“Gai da euskara estandarrean eta argi sortutako testuen ideia nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, eguneroko testuinguru ezagunetan, batez ere harremanetan eta aisialdian. Badaki toki euskaldun gehienetan ongi moldatzen, harreman errazetan. Gai ezagun edo interes pertsonaleko gaiei buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzake. Gai da esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko, eta gai da, orobat, bere iritziak labur-labur arrazoitzeko edo bere asmoak azaltzeko. Baina zailtasunak izaten ditu bere hurbileko testuingurutik kanpo. Mugak ditu, bestalde, zehaztasunean eta erregistroan. Akats linguistiko ugari egiten du, lexiko mugatua du, eta bere jarduera motela da” (Euskarabidea, d.g.).

5.8. Testuingurua

a. Aukerak eta oztopoak

Pentsatzekoa da erdiko mailako ikasleek oraindik ez dutela lortu nahikotasun-maila, Sanchez Carrion (1991) hizkuntzalariak erranen lukeen bezala, hizkuntzaren ezagutza teorikoa ez delako modu eraginkorrean islatzen ikasleen eguneroko bizi-ekintzetan (60. or.). Motibazioak daramatza IHEOeko ikasleak euskara ikastera, oinarritzko ezaugarria, Carrionen aburuz, hizkuntzaren ikasketa gauza dadin, ikasle horiek euskararen gaitasun linguistikoak erdiesteko, bide kulturala (motibazioa, ikasketa eta erabilera) baitarabilte, euskara ama hizkuntza dutenek ez bezala (51. or) Garai kritikoa motibazio hori handitzeko aukera izan daiteke, euskara ikasteko baliabide berriak probatzen, adibidez, ikasgela arruntetan normalean erabiltzen ez direnak.

Ikasleak ikastaroetara atxikitzea eta euren motibazioa mantentzea ez da lan erraza, eta askotan egokituko zaie atsegin ez dituzten ariketak egitea. Metodologia komunikatiboa horri aurre egiteko didaktika modu egokia izan daiteke, ez baitira gaitasunak era zurrunean lantzen eta helburua baita komunikazioa bere osotasunean gauzatzea, ez atalka. Gainera, gaiak alor pertsonalera bideratzen badira, atxikimendu sakonago bat suerta daiteke hiztunaren eta ikasten ari den hizkuntzaren artean. Kultura guztiok zeharkatzen gaitu eta bakoitzarentzat zeresan ezberdina izan dezake. Beraz, kultura bera mintzagai izateak lagundu ahal du ikasleen interesa mantentzen, baita kulturartekotasunarekiko sentsibilitatea lantzen ere.

Dena den, IHEOera doazen ikasleen profila hain da ezberdina, ezin baitaiteke ziurtatu guztiek izanen dutenik prestutasun berbera euren alor pertsonalaz edo ideiez hitz egiteko. Denek ez dituzte baliabide berberak eta horrek desparekotasunak sor ditzake eurengan, nahiz eta irakasleak hori deuseztatzen jarraitu. Horrek ez du erran nahi, ordea, prest daudenik klasekide guztiak irakasleak proposa diezazkien ikasketa modu berrietara egokitzeke. Ikasgelan alor pertsonalak lantzen direnean, irakasleak ongi jakin behar du nola kudeatu eta kontziente izan jatorri eta egoera oso ezberdinetako norbanakoak bil daitezkeela klasean.

Aipatu bezala, lan egiteko moduak aldatu dira, ordutegiak ez dira lehen bezain zurrinak askotan, eta berrogeialdian askok euren bizitzak egokitu behar izan dituzte, beste era batera kontziliatu. Hortaz, irakasleak ezin dezake bermatu guztiek ahalko dutenik hark proposatzen duen denbora-tartean lan egin.

Beste oztopo bat izan daiteke egoera honengatik ikasleak euskara ikastea alboratu izana. Ez gaude, beharbada, guztiz ohituak online mundura, fisikoki frogatzen ez dugunak balioa galtzen baitu askotan, birtuala eta benetakoa den arteko talkagatik. Ikasgelara ez baldin bagoaz, horri atxikitutako eginkizunak ezerezten dira neurri batean, eta diziplina handia behar da ezarritako eskaera guztiak betetzeko.

Gil (2020) soziologoak COVID-19agatik gertaturiko hainbat fase deskribatzen ditu. Shocka da hasierakoa, hainbesterako ez dela pentsatzea bigarrena, gertatu denaren benetako dimentsioaz jabetzea hurrengoa, depresioa edo tristura laugarrena. Horren ondotik letorke egoera berriari gogoz eta erronka berriekin heltzekoa, baina egokitzapen hori gertatu arte hainbat aste pasa dira, non noraezean ibili baikara hartzen ziren neurriak gora behera eta barne-zirrarak kudeatzen. Irakasleak ere bere egoera pertsonala du, baina aipatutakoa kontuan hartzea lagungarria izan dakioke ikasleengana jotzeko orduan. Eta aukera bat izan daiteke bizipen pertsonalak euskararen ikaskuntzarekin uztartzeko.

b. Ikasle taldea

Euskarazko B1 taldeetan 25 ikasle egon daitezke gehienez.

5.8. Metodologia

Berrogeialdiak klaseak emateko dinamikak goitik behera aldatu ditu, eta Internet bidezko ikaskuntza ezin zaio aurrez aurrekoari parekatu. Ikasgelan sortzen diren dinamikak, erlazioak eta hartu emanak nekez gertatu ahalko dira taldeko bideodeietan.

Hori kontuan izanik, metodologia ahalik eta parte hartzaileena erabiliko da, eta ikasleak berrogeialdira bidaliz gero horretan saiatuko da irakaslea.

Hizkuntza eskolan ohikoak dira klase orduetan ekintzak taldetan egitea. Ez da inondik inora bigarren hezkuntzako jardun berbera, gero eta gehiago jotzen baitute institutuetan proiektuak lan egitera. IHEOean Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoak ezartzen dituen lau gaitasunak lantzen dira, eta, normalean, ez dago amaierako lanik edo proiektuaren azken emaitza. Gizartearen alorrekin zerikusia duten gaien bitartez lantzen dira entzumena, idazmena, irakurmena, mintzamina eta bitartekotza. Interneteko baliabideek ahalbidetzen duten heinean, giro parte hartzaile eta dinamikoan lan egitea bultzatuko da. Kasu honetan, kulturari buruzko hausnarketa bera izanen da proposamen didaktikoaren ardatz, eskolako eskakizunen arabera ariketak moldatuz.

5.9. Ebaluazioa

Hizkuntza eskolako B1 maila erdiesteko azterketa bat egin ohi dute ikasleek maiatzaren amaieran edo ekainaren hasieran. Dena den, irakasleak urteko jarraipena egin ohi du ikasleen garapena ikusteko, bide onetik doazen frogatzeko eta zer landu beharko luketen zehazteko. Horretarako ebaluazio indikatzaile batzuk zehaztuko nituzke IHEOeko jarraibideak (Guía de examen de pruebas...) aintzat hartuta jardueren sekuentziaren amaieran ikasleak helburuak bete dituen edo ez balioesteko:

EI1. Bigarren jarduerako ariketen zuzentasunaren zenbatekoa. (%10)

EI2. Mintzamina (%10)

EI3. Irakurketaren ulermena (%20)

EI4. Entzumenaren ulermena (%20)

EI5. Idazketa (%20)

EI6. Azken ekoizpena (%20)

B1 mailan ez dago ebaluazio jarraiturik. Titulua maiatzean edo ekainean egiten duten azterketan lortuko dute, edo iraileko erreperazioan. Ebaluazio indikatzaile

horiek ikasleen maila neurtzeko eta zein atal hobetu behar duten jakiteko balio dezakete. Gutxienez 100etik 65 puntu lortu behar dituzte atal guztien batez bestekoarekin, eta gaitasun batean berean ere ezin dute 50 baino gutxiago izan.

COVID-19agatik ezohiko egoera dela eta, ordea, beste aukera bat eman zaie ikasleei, horien artean ebaluazio jarraitua egitea. Kasu honetan, irakasleak ikasle horrek ikasturtean egin duen lana ebaluatuko du, eta, batez beste, emaitzak 5 izan beharko du. Aukera hori hautatzekotan, ezinen dute ekaineko azterketa egin, baina bai irailekoa. Aukera horrekin, ekainean ez dute titulurik jasoko, nahiz eta oso emaitza ona izan ebaluazio jarraituan. Finean, hurrengo mailara pasatzeko balioko die, B2.1.era alegia.

5.10. Jaruderen sekuentzia

(2,5 orduko saioak eguneko)

A. HASIERAKO FASEA (saio 1)

1. JARDUERA: unitatearen eta azken lanaren azalpena, eta zalantzak argitzea.
2. JARDUERA: hainbat ariketa praktiko

B. GARAPEN FASEA (2 saio)

3. JARDUERA: egindakoa birgogoratu, unitatearen plana erreparatu eta eduki teorikoaren azalpena egin. Zalantzak argitu.
4. JARUDERA: ariketa praktikoak.
5. JARDUERA: mintzamina landu.

C. TRANSFERENTZIA ETA EBALUAZIO FASEA (saio 1)

5. JARDUERA: Grabaketa egin eta bidali.
6. JARDUERA: komunean jarri eta banakako balorazioa egin.

5.11. Jardueren zehaztapenak

Arestian deskribatutako hizkuntzaren ikaskuntza komunikatiboa gaitasunak eskuratzeko marko egokia den arren, IHEOeko programa bost froga gainditzera bideratuta dago, horien prestaketara, alegia (idatzizkoa, ahozkoa, entzumenaren

ulermena, irakurmenaren ulermena eta bitartekaritza). Hortaz, ezinbestekoa da, gaur egun, alor horiek landuko dituen ariketak planteatzea. Proposamen didaktikoa aurrera eramateko beharrezko materiala 8. puntu dago eskuragai.

FASEA ETA JARDUERA	AZALPENA	EDUKIA edo MATERIALA	EBALUAZIOA
Hasierako fasea 1. jarduera 1. saioa	Lehen elkargune honetan diseinatu dugun unitatearen nondik norakoak emanen dizkie irakasleak ikasleei, hau da, zenbat saio eskainiko dizkieten, zer eta nola landuko duten, azken lana eta ebaluazioa nolakoak izanen diren. Ikasgelan azaldutako guztia idatziz igoko du ikasleekin partekatuta Google Drivera, denek gidalerroak eskura izan ditzaten. (25 minutu)	Ordenagailua. Google Drive. Irakaslearen fitxak. (Ikus 8.1. eranskina)	- Ikasgelan parte hartu duen ikasleen kopurua - Google Drivera sarbidea duten ikasleen kopurua.
Hasierako fasea 2. jarduera 1. saioa	Nor-Nork kasuaren erreposoa egingen dute klasean eta ariketak proposatuko dizkie irakasleak. Ikasgelan bertan Nor-Nork kasuarekin esaldiak sor ditzaten eskatuko die irakasleak, ondokoarekin egiteko aukerarekin. Gero komunean jarriko dituzte (35 minutu). Nor-Nork lantzen jarraitzeko	Ordenagailua Google Drive Arian liburuko ariketak eta irakaslearen fitxak (Ikus 8.2. eranskina).	- Ariketak egin eta bidali dituzten ikasleen kopurua. - Ikasleen bataz besteko arrakasta maila edo nota.

	<p>ariketak emanen dizkie irakasleak ikasleei, eta, era berean, materiala eta zuzenketak Google Drivera igoko ditu. Ariketa horiek egiten dituztenean irakasleari emanen dizkiote. Horrez gain, unitate didaktikoari dagokion gaiaren inguruko testu bat proposatuko die, irakurmenaren ulermena lantzeko eta hitz berriak barneratzeko. Horren inguruan eztabaidatuko dute.</p> <p>Irakasleak denbora emanen die ikasleei bidalitako ariketak oraindik klasearen ordutegiaren barnean egin ditzaten. Irakasleak helbide elektronikoaren edo txataren bidez ere erantzun ahalko die ikasleei sortzen zaizkien zalantzei.</p>	<p>(Ikus 8.4. eranskina).</p>	
<p>Garapen fasea 3. jarduera 2. saioa</p>	<p>Aurreko saioan emandakoa birgogoratuko dute eta sortu izan daitezkeen zalantzak argituko dituzte.</p> <p>Ariketen zuzenketan akats nabarmenik edo errepikakorrik izan bada, horiek aipatuko dizkie irakasleak ikasleei. Zuzenketen fitxa Google Drivera igoko du</p>	<p>Ordenagailua. Google Drive. Arian liburuko ariketak eta irakaslearen fitxak.</p>	<p>- Parte hartu duen ikasleen kopurua. - Google Drivera sarbidea duten ikasleen kopurua.</p>

	irakasleak. (15. minutu)		
Garapen fasea 3. jarduera 2. saioa	<p>Hiztegia landuko dute, kulturartekotasunarekin eta ohiturekin zerikusia duena. Aurreko saioan emandako testuari egingen diote aipamen.</p> <p>Ondoren, bi gai horiekiko aurrejakintza balioetsiko dute. Ondoren, ikasgelako ordenagailuaren bidez, irudi ezberdinak erakutsiko dizkie irakasleak ikasleei eta deskribatzen duten esaldiekin lotu beharko dituzte. Irakasleak hiztegiaren fitxa bat igoko du amaieran Google Drivera. Batez ere, mintzamina landuko dute. (45 minutu).</p> <p>Bigarren saio honetan entzumenaren ulermena lantzeko bi ariketa ere egingen dituzte. Irakasleak fitxak banatuko ditu, baina Google Driven ere utziko du eskuragarri materiala. Hari emanen dizkiote erantzunak ikasleek. Halaber, entzundakoaren iruzkin labur bat egin dezaten eskatuko die</p>	<p>Ordenagailua.</p> <p>Google Drive.</p> <p>Entzumena lantzeko ariketak.</p> <p>Gaiaren inguruko hiztegia lantzeko fitxak.</p> <p>(Ikus 8.3. eranskina).</p>	<p>- Ariketetan parte hartu duen ikasleen kopurua.</p> <p>- Ikasitako hitzak eta esamoldeak.</p> <p>- Entzumenaren ulermenaren ariketaren emaitzak.</p> <p>-Testuaren zuzentasuna B1 maila baloratzeko ezarritako irizpideen arabera</p>

	irakasleak, ordura arte ikasitako hitz berriak eta gramatika formak islatzeko, 50-70 hitz ingurukoa.		
Garapen fasea 4. jarduera 3. saioa	<p>Hiru ikasleko taldetan ordutegi bat finkatuko du irakasleak mintzamina praktikatzeko. Horretarako unitateari dagokion gaiaren inguruko galdera batzuk emanen dizkie gidalero bezala aurretik. Aurreko saioetan landutakoa erabili ahal izanen dute. Horrez gain, euskal kulturaren inguruko testu labur bat banatuko die irakasleak, gero horren inguruan hitz egin dezaten. Izan ere, aurreko gaitasunak neurtzeko beste konpetentzia bat ezarri dute hizkuntza eskolan, bitartekaritzarena, alegia. (2 ordu eta erdi)</p> <p>Halaber, hurrengo egunean hiruko taldetan grabatu beharko duten testua prestatzen hasiko dira. Aukera dute ikasleek testu hori irakasleari bidaltzeko, berrikus dezan. 90-120 segundo iraunen duen ahots grabaketa izanen da, 100-150 hitz arteko testua, alegia.</p>	<p>Ordenagailua.</p> <p>Ikasleei banatzeko testuak.</p> <p>Mintzamina prestatzeko galderak.</p>	<p>- B1 maila baloratzeko txostenak ezartzen dituen irizpideen araberrako ebaluazioa.</p> <p>- Proposatutako galdera kopurua eta horien erabilpena.</p>
Transferentzia	Aurreko saioan hasitako testua	Ordengailua edo	- Jasotako grabaketa

<p>eta ebaluazio fasea 5. jarduera 4. saioa</p>	<p>amaituko dute eta zalantzak argitu ahalko dizkie irakasleak. Ondoren, osatutako taldeek ahots grabaketa egingen dute eta irakasleari bidaliko diote (40 minutu).</p>	<p>telefono mugikorra. Ahots grabaketa egiteko telefonoa edo gailuren bat. (Ikus 8.5. eranskina)</p>	<p>kopurua</p>
<p>Transferentzia eta ebaluazio fasea 6. jarduera 4. saioa</p>	<p>Grabaketak komunean jarriko dituzte Google Drive aplikazioaren bidez, ikasleek baimena emanaz gero. Irakasleak adierazpenak egin ahalko ditu eta eztabaida gidatu ahalko du, horretarako aukerarik ikusiz gero (30 minutu). Banakako ebaluazioa behin saioa amaitzen dutenean egingen du irakasleak eta oharrak bidaliko dizkie modu pribatuan.</p>	<p>Ordenagailua edo telefono mugikorra.</p>	<p>- Komunean jarritako grabaketa kopurua. - B1 maila baloratzeko txostenak ezartzen dituen irizpideen arabera ebaluazioa.</p>

6. ONDORIOAK

Alor teorikoa eta proposamen didaktikoa egitean, ikaslekuak ezartzen dituen eskakizunei jarraituz, ildo akademikoek eta benetan planteatu daitezkeen proposamenek talka egiten dute askotan, bete beharreko helburuetara iristeko bideak zurrinak direlako. Dena den, irakasleren araberakoa izanen da ariketen prestaketari, planifikazioari eta berrikuntzari eskainiko dien denbora. Departamentuko irakasleek euren artean parteka ditzakete proposamenak eta lan karga arindu. Benetan hizkuntzaren irakaskuntza komunikatiboa lehenetsi nahi bada, ikasgaia zentzu horretan bideratzen eta kontsigna argiak eskaintzen saiatu behar du tutoreak. Hainbat metodologia hauta daitezke eta egoerara moldatu.

Unitate didaktikoaren aplikazioaren arrakastan faktore askok eraginen dute: irakaslearen gaitasunak, ikaslerenak, motibazioak... Proposamen batek ongi funtziona dezake ikasgela batean, eta beste batean ez. Hori dela eta, planifikazioak bezain besteko garrantzia du ikasgelaren ebaluazioak eta norberarenak. Ebaluazio indikatzaileak oso baliagarriak dira kontrola eramateko, hobetzeko alorrak identifikatzeko eta helburuak bete diren ziurtatzeko.

Planifikazioak garrantzia handia du planteamenduak aurrera eramateko eta helburuak eta bidea argi izateko, nola irakasleak, hala ikasleek. Horrek ez du erran nahi inprobisatu edo malgutasunez joka ezin daitekeenik, baina helmuga bat buruan irudikatzeak ikasleek ikaskuntzarekiko duten engaiamendua handitzen du. Denboraren aprobetxamendu egokia egiteko, eta planifikazioa biribiltzeko, irakasleak saioaren lehen bost minutuak egun horretan egin beharrekoak arbelean idazteko erabiltzea klasea hasteko modu egokia da.

Kulturaren eta hizkuntzaren irakaskuntza uztartzea helburu izan du lan honek, komunikazio gaitasuna menderatzeko kulturartekotasunaz zeharkatutako ikasketa batek asko erraz dezakeelako prozesua, baita hiztun kontzientziatuak eta bestearekiko

solidarioak eta enpatikoak sortu ahal dituelako ere. Hizkuntza bat jakitea tradizioz ezarritako lau gaitasunez (entzumena, irakurmena, idazmena, ahozkotasuna) harago doa, arau gramatikalen ezagutza sakona izateak ez diolako ikasleari ziurtatuko komunikazio-ekintzaren arrakasta.

Kultura zer den definitzea zaila den bezala kosta zaio norbanakoari berea ez direnak aurre-epaiketarik gabe begiratzea. IHEO euskara ikasleen profil oso ezberdinen elkargunea izan daiteke, adinari, sexuari edota jatorriari dagokionez. Zenbaitek sentiberatasun handiagoa izanen dute euskara eta euskal kulturarekiko, motibazioak ezberdinak baitira kasuan-kasuan. Kulturartekotasunaren lanketa, ordea, ikasleak euskal kulturara gerturatzeaz gain, bakoitzaren kulturaren pertzepzioaz hausnartzeko parada izan daiteke, eta kulturaz beraz pentsatzea, ariketa berritzaile eta sakona. Hizkuntzaren ikaskuntzak, gainera, norbereaz hitz egitetik iragan behar du. Ikasleak motibazio handiagoa izanen du gai bada “bere kulturaz” mintzatzeko, beharbada arrotza zaion horri gerturatzen zaion bitartean.

7. BIBLIOGRAFIA

- Amezaga, J. (1994). *Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak*. Leioa, Bizkaia: EHU.
- Areizaga, E. (2001). Cultura para la formación de la competencia comunicativa intercultural: el enfoque formativo. *Revista de Psicodidáctica*. n° 11-12, 157-170. Or. Orrialde honetatik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/ejemplar/62261>
- Berastegi, N. (2014). Hizkuntza eta cultura aniztasuna Bilboko eskoletan. Euskararen erabileran eta euskal kulturaren praktikan eragiten duten faktoreak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 92-93, 33-48 or, Gipuzkoa: Andoain.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (2019). *Nafarroako Foru Komunitateko parte-hartze kulturalari buruzko Inkesta*. Donostia: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (2019). *Nafarroako Foru Komunitateko parte-hartze kulturalari buruzko Inkesta*. Donostia: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Euskalerrria Irratia (2020, urtarrilak 29). Zer kultura kontsumitu nahi dugu euskaldunok? Orrialde honetatik berreskuratua: <https://euskalerrriarratia.eus/irunerria/1580321563236-hari-izpia-bertsio-berritua>
- Huttunen, I. (1999). Curriculumaren berrikuntza eta ikasle helduaren autonomia. *Hizpide. Euskalduntze-alfabetatze aldizkaria, Monografiak* 3, (95-105. or). Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Instituto Navarro de Estadística (d.g.). Padrón de Habitantes a 1 de enero de 2019. Datos provisionales. https://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departament+os/Economia+y+Hacienda/Organigrama/Estructura+Organica/Instituto+Estadistica/NotasPrensa/Padron+Continuo+de+Habitantes.htm orrialdetik hartua.
- Kolak, A. (2015). Didactic culture of school and students' emotional responses (related to the teaching process). *Conference of the International Journal of Arts & Sciences, CD-ROM, 08(02)*, 73–80. or. Kroazia: Zagrebeko Unibertsitatea
- Llobera, M. (1999). Hizkuntza hedatuenean irakaskuntza helduentzako: berrikuntza kurrikularrak. *Hizpide. Euskalduntze-alfabetatze aldizkaria, Monografiak* 3, (71-80. or). Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Martínez de Luna, I.; Suberbiola, P.; Zalbide, M.; Egaña, A.; Urbieto, E. (2013). *Comportamiento lingüístico del alumnado*. Donostia: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- Nafarroako Gobernua (2019). *Programación 2019-2020. Nivel B1*. Orrialde honetatik berreskuratua: https://eoip.educacion.navarra.es/web/wp-content/uploads/2020/05/02-Ingl%C3%A9s_Intermedio_B1.pdf
- Odriozola, J.M. (2004). *Euskalgintzaren lekukoak*. Donostia, Gipuzkoa: Elkar Argitaletxea.
- Odriozola, J.M. (1996). Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak, Josu Amezaga Albizu, UPV/EHU, 1995, 283 orr. 56-65. orr.
- Oliveras, A. (2000). *Hacia la competencia intercultural en el aprendizaje de una lengua extranjera: estudio del choque cultural y los malentendidos*. Madrid: Edinumen.
- Sanchez Carrión, J.M. (1991). *Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia, Gipuzkoa: Elkar Argitaletxea.
- Widdowson, H.G. (2013). *Teaching Language as Communication*. Erresuma Batua: Oxford University Press
- Yin, L.; Cortazzi, M. (1998). *Perspectivas interculturales en el aprendizaje de idiomas*. Erresuma batua: Cambridge University Press.
- Zarate, G. (1999). Berrikuntza Kurrikulara eta helduen irakaskuntza: kultura eta eduki tematikoa curriculumean. *Hizpide. Euskalduntze-alfabetatze aldizkaria, Monografiak 3*, (81-94. or.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

8. ERANSKINAK

8.1. Gidoia

Data: X-tik X-ra

Hemen dituzue datozen bi asteetan landuko dugun gaiaren nondik norakoak. Material guztia eta ariketak Google Driven izanen dituzue. Edozein zalantzarik baduzue, ikasgelan aipatuko dugu. Bestela, idatzi posta elektronikora eta ahal bezain lasterren erantzunen dizuet.

Hona hemen hurrengo lau saioetako informazioa:

1. saioa

- Gai berriaren aurkezpena egingen dugu. Honen guztiaren amaierako lana ahots grabaketa labur bat izanen da, 90-120 segundo artekoa.
- Nor-Nork kasua erreparatu dugu. Horretarako Google Driven izanen dituzue bai fitxak, bai Arianeko liburuko ariketak. Egindakoan, irakasleak jasoko ditu. Era berean, irakurmena lantzeko testu bat izanen duzue jorratuko dugun gaiaren inguruan. Hori, ordea, hurrengo saiorako gordeko duzue.

2. saioa

- Nor-Nork lantzeko ariketak berrikusiko ditugu.
- Unitateko gaiaren inguruan arituko gara: zein da gure kultura? Horretarako aurreko saioko testua erabiliko dugu, eta hainbat ariketa egingen ditugu.
- Driven entzumena eta idazmena lantzeko ariketak izanen dituzue. Fitxa horiek klasean banatuko ditugu. Ariketak egindakoan, irakasleari posta elektronikoz bidali edo hurrengo egunean ikasgelan eman.

3. saioa:

- Mintzamina lantzeko hiruko taldeak osatuko ditugu. Hori prestatzeko gidalerroak emanen dizkizue irakasleak, nahiz eta eskuragai izanen dituzuen Google Driven.
- Halaber, hirugarren saioan, azken ariketa izanen denarekin hasteko tarte izanen duzue; alegia, 90-120 segundo arteko ahots grabaketa bat (100-150 hitz inguru). Lan hori egiteko kontsignak aurrerago ikusiko ditugu.

4. saioa:

- Azken egitekoa amaitzeko tarte izanen duzue. Ahots grabaketa irakasleari bidaliko diozue posta elektronikoaren bidez.
- Ikasleen baimenarekin, komunean jarriko ditugu guztion lanak.
- Amaierako ebaluazioa egingen dugu banaka, azken bi asteotako ariketak balioesteko.

8.2. Nor-Nork lantzeko ariketak

1. Identifikatu nor-nork aditzak:

Euskal kulturaz hitz egiten dute batzuek eta besteek, baina zeri deitzen diogu euskal kultura? Horixe argitu beharko litzateke, besteak beste, azken aldian hizpide izan den Kulturaren Euskal Planaz jarduteko. Planaren zirriborroa irailean aurkeztu zenetik, ikusmina sortu da kulturagintzako eragileengan. Kultur eragile ugari hartu zuten parte bere osaketan eta orain zuzenketak egiteko garaia da, urte amaierarako aurkezteko asmoa baitu Eusko Jaurlaritzak dokumentu definitiboa. Azken batean, gurea dugunari nola eutsi delako aurrera begirako estrategia. Alde ditugunak (sortzaile ugari, erroekiko lotura) eta kontra egin diezaguketanak (globalizazioa, eragile eta administrazioaren arteko elkar ulertze eskasa) bidaide izanik, gure kulturaren egoeraz aritu gara, pausoak norantz luzatu behar ditugun jakite aldera.

2. Jarri aditz laguntzailea orainaldian eta lehenaldian, ahal bada:

- Bizilagunek Afrikako plater bat prestatu _ _ _ _ _
- Zuk gu musikaz duzun ezagutzarekin harritu _ _ _ _ _
- Ohitura askoren erruz, izaki bizidun asko hiltzen _ _ _ _ _
- Guk zuek ez _ _ _ _ _ zuen ideologiagatik epaituko
- Lanagatik zure jaioterrian utzitako senideak faltan botatzen _ _ _ _ _

3. Sortu esaldiak:

- Gaituzue
- Duzue
- Zintudan
- Genituen
- Gaituzte
- Ninduten
- Naute
- Zintuztegun

8.3. Entzumena eta mintzamina lantzeko ariketa

ITURRIA: <https://euskalerrairratia.eus/irunea/1594804230361-alex-pulido-wiki>
(tartea:00:00-03:30)

GALDERAK:

1. Nor da Alex Pulido eta zer da WikiBizi Euskal Herria?
2. Zertarako balio du WikiBizi Euskal Herriak eta nola parte har daiteke?
3. Zein beste asmo aipatzen du hizlariak?

TALDETAN HAUSNARTZEKO GALDERAK:

1. Zein ekarpen egin ahal dio WikiBizi Euskal Herriak euskal kulturari?
2. Zer iruditzen zaizue halako ekimena?

8.4. Irakurmenaren ulermena eta mintzamina lantzeko ariketa

ITURRIA: <https://www.euskadi.eus/aniztasunari-erantzuteko-programak-kulturartekotasuna-sustatzeko-programak/web01-a3hinklu/eu/>

Flamenco On Fire jaialdiak doako jardueretarako sarrera eskaerak ireki ditu

- Gonbidapenak jaialdiaren webgunearen bidez eska daitezke, ezarritako edukiera agortu arte.

Abuztuaren 26tik 30era Iruñean eta Tuteran egingo duten Flamenco On Fire jaialdiak doako jardueretarako sarrerak eskatzeko prozesua ireki du. Horrela, Kale, balkoi eta patioetako, eta F de On Fire zikloetako zein Eterno Sabicas jardunaldietako sarrerak doan eskatu ahal izango dira jaialdiaren webgune ofizialaren bidez, indarrean dagoen legeria betez ezarritako edukiera agortu arte. #Onfireresponsible lelopean, jaialdiak hainbat gidalerro eta gomendio prestatu ditu bertaratutako publikoari, taldeari eta artistei zuzenduta.

Doako kontzertuen barruan, Kale, balkoi eta patioen programazioa Flamenco On Fire jaialdiaren indarguneetako bat izango da aurrean ere. Udaletxeko balkoian izango dira abuztuaren 27tik 30era Remedios Amaya, La Macanita, Pepe Habichuela eta Kiki Morente, eta Victor Monge Serranito.

Pedro Planillo, Jesus Carbonell, Jolis Muñoz, Kiki Morente, Maria Vizarraga eta Antonio Santiago Ñoño; eta Carmen La Talegona arituko dira San Jose plazan, hilaren 28tik 30era. Abuztuaren 27tik 30era, Antonia Jimenez, Rafael de Utrera eta El Perla, Victor Monge Serranito eta Antonio Serranoren kontzertuak izango dira. Horrez gain, abuztuaren 26an, Miguel Soto Londrok kantaldia eskainiko du Tuteran, Jesus Guerreroren gitarrarekin batera.

Tailerra eta jardunaldiak

Asteburuan, abuztuaren 29an eta 30ean, Ezpeleta Jauregian, Francisco José Suárez Torombok familientzako flamenko tailerra aurkeztuko du. Bestalde, Eterno Sabicas jardunaldiek gitarra jotzaile nafarraren irudian sakonduko dute Baluarte Auditorioan egingo diren hitzaldien bidez; eta bi dokumentalen proiektzioak izango dira, hain zuzen ere, Civivox Condestable aretoan. Programazio osoa www.flamencoconfire.org webgunean aurki daiteke.

GALDERAK:

1. Zer da Flamenco on Fire?
2. Zenbateko edukiera du eta nola lor daitezke sarrerak?
3. Hemengo kulturaren parte da? Eztabaidatu zuen artea.

8.5. Azken ariketa egiteko gidalerroak

Azken lana: 90-120 segundu arteko ahots grabaketa hiruko taldetan.

Helburua: mintzamina lantzea.


Beharrezko materiala: folioa eta bolia, telefono mugikorra.

Azalpena: azken saioetan kulturaz hausnartu dugu, eta elkarren artean ideiak partekatu ditugu. Zaila da kultura bat zer den definitzea eta zerk osatzen duen erabakitzea. Ariketa honetan horren inguruko ideiak eta ondorioak plazaratuko ditugu. Nola? Sormena erabili beharko duzue taldekideok. Guztion parte hartzea ezinbestekoa da, eta grabaketaren formatua askotarikoa izan daiteke: irrati elkarrizketa, anekdotak, eztabaida, irakurketa soila... Grabaketa egindakoan irakasleari bidaliko diozue posta elektronikoz. Guztion baimenarekin lanak ikasgelan partekatuko eta entzunen ditugu.

8.6. Grafikoa

17. Grafikoa.

Kultura-praktikek biztanlerian izan duten intzidentziaren rankinga, biztanleria-taldean arabera (%)



*Zinemari dagokionez ez da galdetzen euskarazko filmetarako asistentziagatik, baizik eta euskarazko zinemarako lehentasunagatik, hautatzeko aukera izanez gero.